

BEUSKARAREN BERRIPAPER A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

Arrate eta Bizkaia, nortasun handiko irratiak

Programazio osoa euskaraz egiten dute. Eremuz eta bitartekoz ez dira *Euskadi Irratia* bezain handiak, ezta herrietako irratiak bezain txikiak ere. Beren aurrekontuen zatirik handiena publizitatearekin estaltzen dute eta bizkaiera erabiltzen dute nagusiki.

· **Arrate Irratia. FM 87,7.** Don Pedro Gorostidi abadeak sortu zuen 1959an. 1964an itxi egin zuten, 1982an berriz emititzen hasi zen arte. 1989an FMn emititzeko behin betiko baimena lortu zuen. Gaur egun zenbait langilek zuzentzen duten elkarte mugatu baten eskuetan dago *Arrate Irratia*. Bernardo Ibarren ardurapean, sei langilek egiten dute irratia, 15 bat berriemaileren laguntzarekin. Urtean



20.000.000 pta.ko aurrekontua du. Hortik 6.000.000 pta. irratiak dituen 3.000 bazkideen kuotarekin estaltzen da. Gainerakoa publizitatearekin.

Arrate Irratiaren programazioa goizeko 8etan hasten da eta gaueko 10etan amaitu. Denetariko irratsaioak egiten dituzte, baina trikitixak, herri kirolek eta euskarak leku berezia dute. Asko dira eskerrak emanez deitu edo

irratia bisitatzera joaten diren entzuleak. Horregatik, eta gogoan izanda 3.000 bazkide dituztela, Cies zundaketa etxeak aitortzen dizkien 8.000 entzuleak baino dezente gehiago dituztela uste dute.

· **Bizkaia Irratia. FM 102,6.** Irrati berri moduan 1990ean antenaratu bazen ere, Juan Mari Iraolagoitia zuzendariak uste du *Bizkaia Irratia*, *Bilboko Herri Irratiaren* barruan 1973an euskaraz lan egiten hasi zen taldearen oinordekoa dela.

Irratiko 15 langileek jendeak hurbilen bizi duen euskara, bizkaiera, eta albisteak lantzen dituzte. Aurtengo duten 65.000.000 pta.ko aurrekontua batipat merkatari txikien publizitatearen bidez estaltzen dute. Bilbokoaz gainera, Lekeition, Aramaion, Ondarroan eta Markinan dauzkate antenak, baina zenbait herritan ez da seinalea ondo hartzen.

Entzule gehien -Cies etxeak 17.000 entzule dituela dio- Ondarroan, Lekeition, Galdakaon, Igorren eta Mungia inguruan dituzte, *Bizkaia Irratiaren* seinalea ondo eta garbi heltzen den lekuetan alegia.

Programazioa goizeko 7etatik gaueko 11k arte luzatzen da eta denetarik eskaintzen du: irrati klasikotik hasi eta formula irratiraino, tartean lehiaketak eta sartuz. Orduero albistegi laburtxoak eskaintzen ditu.



Kazetaritzan trebatutako esatari gazteak ditu Bizkaia Irratiak

Bernardo Ibarra, Arrate Irratiaz maiteminduta

Irratizale porrokatua betidanik, 41 urteko iurretar honek txikitandik izan zuen *Arrate Irratiare*kiko fijasioa. Bilbon bizi eta euskara galduta zuela, amamaren etxera

itzultzen zen bakoitzean bere bizitza markatuko zuen hirutasuna aurkitzen zuen: familia, euskara eta *Arrate Irratia*. Hamabost urterekin euskara ikasteari ekin zion, ondo ikasi arte. Arteen *Arrate Irratia* itxita zegoen.

Soldadutzan zegoela, asteburuko baimen batean Arratera joan eta don Pedro Gorostidi irratiko sortzailea ezagutzeko

aprobetxatu zuen. Lau urte beranduago elkarte bat sortu eta baimenik ez zutela, berpiztu egin zuten *Arrate Irratia*, gobernuak lau hilabete beranduago itxi zuen arte. Etsi ez eta 1982an berriro antenaratu zuten, oraingo honetan betiko eta

Bernardo Ibarren gidaritza eta ardurapean.

Hasierako urte horietan, hala ere, Bernardok Iberdueron egiten zuen lan,



Bernardo Ibarra

Bilbon. Asteburuak irratian igaroten zituen lanean eta astegun askotako lan ondorengo ordu ugari eman zituen Arraten, 1986an ofizioa eta afizioa bat etorri ziren arte, urte hartan dedikazio osoz hasi baitzen lanean bere bihotzeko *Arrate Irratian*.

Urte hauetan egindako lanak eskarmentu handia eman diola dio. Egunero ari dira zerbait berri ikasten.

Herrietan zehar sortzen ari diren irratietatik lehia handia datorkiela ikusten du. "Ez dakit medio larregi ez diren izango, denak hortik bizi ahal izateko", dio, "baina guk geure estiloari eutsiko diogu eta gerrikoa estutu behar badugu, prest gaude horretarako ere".

Hamar bekatarako deialdia

HPINek euskararen statusaren alorreko ikerketak egiteko 10 bekatarako deia egin du. Landu ahal izango diren gaiak hauek dira: hizkuntza transmisioa, euskararen erabilera sustatzeko egiten diren egitarauen azalpena, azken urteotako soziolinguistikako ikerketen bilduma eta azterketa, herrietako euskararen aldeko elkarteak, sare sozialak eta euskararen erabilera, hizkuntza plangintzako esperientzia desberdinen azterketa eta EAEko udaletako euskara alorrak.

Beka bakoitza 500.000 pezetaz hornituta dago eta zortzi hilabeteko iraupena izango du. Unibertsitate lizentziadunek eta lizentziaturako azken bi urteetan dabilzanek eskatu ahal izango dituzte beka. Urtarrileko alean jakinaraziko da aukeratutako ikerketa eta ikertzaileen zerrenda.

Euskara Cambridge-ko Unibertsitatean. Cambridge-ko Unibertsitatean euskara eskolak ematen hasi dira asteen ordubetez. Irakaslea Phillip Basterra da, Filologia Hispanikoa eta Frantsesa ikasten ari da, eta bilbotar baten biloba. Lazkaoko Maizpide euskaltegian eta Gasteizko Filologia Fakultatean ikasi eta landu zuen euskara.

Informatika Hiztegia. UZEI elkarteak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika Fakultateak Informatika Hiztegia kaleratu dute Elkar argitaletxean. Hiztegiak bi atal nagusi ditu: lehenak euskarazko sarrerak, sinonimoak eta definizioak dakartza, espainierazko, frantseseko eta ingelesezko baliokideak emanez. Bigarrenak hiru hizkuntzatan alfabetoz ordenaturiko zerrendak eskaintzen ditu.

"ETB dimanche" du izena Euskal Telebistaren bigarren kateak igandeetan frantsesez Beatrice Mollerren zuzendaritzapean egiten hasi den 45 minutuko programak. ETBko lehen katea orain urtebete hasi zen *Ipparaldearen orena* bost minutuko eguneroko albistegia ematen euskaraz. ETBk, bestalde, *Maite Barrenetche Kazetaritza saria* eratu du Ipparaldeko ikusentzuneke kazelaritza sustatzeko.

Carver eta Kafka euskaraz. Raymond Carver-en *Katedrala* eta Franz Kafka-ren *Prozesua* kaleratu dira euskaraz Elkar argitaletxearen bidez. Itzultzaileak Juan Mari Mendizabal eta Anton Garikano izan dira. Liburu hauek euskaratzeko Kutxaren *Orix*e *Itzulpen Saria*z baliatu ziren itzultzaileak. Itzulpenak egiteko jatorrizko bertsoiak erabili dituzte, alemana eta ingeleza, alegia.

EHUko irakasle elebidunak prestatzeko akordioa

Euskaraz irakasteko gai diren unibertsitate irakasleen falta ikusita, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzako Sailak, HPINek eta Euskal Herriko Unibertsitateak azken honetako graduatuondokoak euskaraz prestatzeko akordioa sinatu dute. Indarrean jarri duten programaren helburua euskaraz irakasteko graduatuondokoen prestakuntza programa baten garapena da, EHUk irakasle elebidunak kontratatzeko egingo dituen deialdietan hizkuntza zein zientzia aldetik jantzitako irakasleak izan ditzan.

Prestakuntza programa hamabi hilabetetan zehar garatuko diren hogeita bi proiektutan gauzatuko da. Programan zehar, proiektu bakoitzari dagokion jakintza arloko euskarazko irakaskuntzan erabilgarri diren euskarazko materialak prestatuko dira. Euskarazko irakaskuntzari lotutako beste jarduerak batzuk ere landuko dira. Bakoitzari dagokion gaien euskara mintzatua eta idatzia

menderatzen duten goi mailako tituludunek aurkez ditzakete proiektuak.

Akordio honen bidez Lan eta Gizarte Segurantzako Sailak 30.360.000 pezeta jarri ditu. HPINek programaren bilakaeraren berri emango dio eta programako proiektuak aukeratzeko epaimahaitan eta Akordioaren Kudeaketa batzordean hartuko du parte. Euskal Herriko Unibertsitateak, bere aldetik, programaren publizitatea eta zabalkundea egingo du, giza, material eta teknika baliabideak jarri, jasotako diruak kudeatu, programaren jarraipena egin eta antolatu diren epaimahai eta batzordeetan parte hartuko du.

Proiektuen aukeraketa campus bakoitzean eratu den aukeraketa epaimahai baten esku egon da. Prestakuntzako hamabi hilabeteak igarotakoan EHUk diploma edo frogagiri bana luzatuko die esku hartzaile guztiei, kontrataziorako deialdietan merezimendu gisa baloratuko dena.


John M. Ysursa, Chino, Californiako hiritar euskaldun-amerikarrak, NABO erakundeak (Ipar Ameriketako Euskal Elkarteak) antolatzen dituen Music Camps delakoak zuzentzen ditu. Udaleku hauetan euskara eta euskal musika, kantak eta dantzak irakasten zaizkie nahi duten umeei.

Daniel Landart, 46, Donostiriko (Nafarroa Beherea) idazleak Irun Hiria Literatur saria irabazi du nobela sailean, Batita Haundia lanagatik. Hamalau antzerkiren egile, Hogoi urte, Ahien ahula eta Erranak erran idatzi ditu. Azken urte hauetan Euskal Kultur Erakundeak animakuntza zuzendaria dugu.

Ana Isabel Gotxi, Bilboko Edinfor, Heziketa, Autoedizio eta Informatika Zentruko zuzendaria. Edinforrek informatika euskaraz ikasteko aukera eskaintzen die ikasleei.

Bidegileak

HPINek argitaratzen duen Bidegileak bildumaren azken sorta duzue hauxe. Resurrección María Azkue, Koldo Eleizalde, Arturo Kanpion eta Julio Urkixo aurkezten dira liburuskatsegin hauetan. Egileak Jose Antonio Arana-Martija eta Jose Javier Granja Pascual dira eta zuzendaria Joseba Intxausti.



EUSKARAREN BERRIPAPERA zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

**Hizkuntza Politikarako
Idazkaritza Nagusia
Wellingtongo Dukea, 2
01011 Vitoria-Gasteiz (Araba)**

Euskaraz Gazteleraz

Izen-deiturak:.....

.....

Helbidea:

.....

Herria:

Kodea:

Lurraldea:.....

Tel.:.....

Galdezka

Hizkuntza normalizazioa

G. Inoiz aipatu duzu ez dugula oraindik kultura elebidunik sortu. Zer esan nahi duzu?

E. Arazo honek euskararen mugak gaintzen ditu. Hizkuntzena gizarte arazoa da eta gaur egun badirudi gizarte arazoak "besteen" arazoak direla. Arriskua honetan datza: euskaldunek herri honetan, gutxiengoa direnez, gehiengoaren jokora eta hizkuntzara egokitu behar dutela pentsatzea. Erdaldunek euskaldunen beharra dute eta alderantziz.

Elkarte honetan ez dugu hizkuntza bat, bi baizik eta bien ondoan mundu ezberdinak: bestelako historia, sentiberatasuna, baloreak eta esperientzia dutenak.

Ahaleginak egin behar ditugu hizkuntza bien arteko aldea etorkizunean txikiagoa izan dadin. Izan ere, normalkuntzan aritzea egunero elkar onartzea eta elkarrekin jardutea da, gizarte kohesionatuagoa eta integratuagoa egitea.

M. Karmen Garmendia.
Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia

Hizkuntzen ingeniartzara egokitu beharra

André Danzin, Europako Komunitateko hizkuntzen azpiegiturari buruzko txostenaren egileak Madrilan esan zuenez, informatikaren eta telematikaren bitartekoak erabiltzeko gai ez diren hizkuntzak "ez dira baliagarriak izango zientzia, teknika eta merkataritzarako". Hitz hauek Europako aditu asko bildu zuen *Lengua y Tecnología 2000* hitzaldian esan zituen.

André Danzinen txostenak dioenez, kultura idatzitik pantailako kulturara emango den jauzia "aurretik gertatutako gertakizun guztiak baino bapatekoagoa eta iraultzaileagoa izango da, moldiztegiaren agerpena baino askoz ere handiagoa. Hitzezko kulturatik idatzizko kulturaren artekoarekin aldera liteke soilik".

Datozen hogeita bost urteetan gauzatuko den iraultza hau honako hauetan ikus liteke: idatzitakoa,

baita eskuz idatzitakoa ere, irakurtzeko gai diren makinetan; hitz eginez esandakoa ulertzeko gai diren tresnetan eta entzundakoa idatzita itzultzeko gauza direnetan; testu idatzien bapateko itzulpena egiten duten tresnetan edo, luzerago joaz, hizkuntza desberdinak hitz egiten dituzten bi lagunen arteko elkarrizketa aldi berean itzultzeko gai direnetan.

Mundua arrazionalagoa eta erosoagoa izango omen da eta komunikazioa eta berau eskuratzea inoiz baino errazagoa. Baina abisua argi entzun zen: *hizkuntzen ingeniartzara* egokitzen ez diren mintzairak hondoratu egingo dira, komunikabide nagusietatik alboratuta geratuko baitira. Gainerako hizkuntzetako adituak kezkatuta agertu ziren eremu berri hauetan ingelesa eta japoniera erakusten ari diren nagusitasunaz.

✓ Kontutan hartzeko

• **Ekin Euskarari** Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiaren erakusketa ibiltaria Lekunberrin izango da abenduaren 17tik aurrera.

• **Gabonetako Ume Parkea.** Abenduaren 17tik urtarrilaren 9ra bitartean egingo da, Bilboko Erakustazokan. HPINek stand bat izango du, eta bertan umeentzako jolasak eta

opariak izango ditu.

• **Felix Ugarte II. Itzulpen Lehiaketa.** EHUKo Filologia eta Geografi-Historia Fakultateak antolatua. Edozeinek esku har lezake, Filologia, Geografia eta Historiari buruzko testuak itzuliz. Testuak 1994ko urtarrilaren 28a baino lehen aurkeztu. 100.000 pta.ko sari bakarra.

EUSKO JAURLARITZA

LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA
HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA



GOBIERNO VASCO

SECRETARIA DE LA PRESIDENCIA
SECRETARIA GENERAL DE POLITICA LINGÜÍSTICA